



euskaltzaleen topagunea

Euskaltzaleen Topaguneak lagun bat kontratatu behar du epe laburrean [Mintzalaguna egitasmoa](#) Arabako Mendialdean gauzatzeko. Hona eskaintzaren nondik norako zehatzak:

Zer da MINTZALAGUNA?

Mintzalagunean euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak hitz egiteko ohitura ez dutenekin elkartzen dira talde txikietan, eta euskaraz den harreman atsegin baten bitartez hizketarako jario egokia lantzea eta ohitura txertatzea ditu xede.

Helburu orokorra hori izanik, baditu hainbat azpi helburu:

Partaideei dagozkien helburuak:

- 1.- Norberaren euskara maila hobetzea eta ikas prozesua azkartzea
- 2.- Normalizazio prozesuan eragile aktibo izatea.
- 3.- Hizkuntzarekiko motibazioa areagotzea

Gizarteari dagozkion helburuak:

- 1.- Euskal hiztunen kopurua handitzea.
- 2.- Euskarazko harreman sareak sortzea, ehuntzea eta erabilera gune berriak irabaztea:
- 3.- Hizkuntzarekiko atxikimendua lantzea.

Eskatzen da

- Euskara ongi menperatzea.
- Mendialdekoa izatea edo Mendialdea ondo ezagutzea.
- Taldeak dinamizatzeko eta harreman pertsonaletarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.
- Ofimatika programak erabiltzeko trebetasuna izatea.
- Gestioan eta planifikazioan eskarmentua izatea.
- Ordutegi malgua izatea.

Eskaintzen da

- Euskaltzaleen Topaguneak egindako kontratua, **astean 2,5 orduko** dedikazioarekin.
- Topagunearekin lankidetzan Arabako Mintzalaguna egitasmoaren dinamizatzea.
- Topaguneko aholkularitza eta koordinazio lan-taldean parte hartzea.

Zure burua aurkezteko:

- Jarri gurekin harremanetan maite@topagunea.eus helbidean **2019ko martxoaren 25a** baino lehen.

Andoainen, 2019ko martxoaren 12an.